

Zenbat duintasunek




UXUE APAOLAZA LARREA

80 lagun hil ziren, eta 145 zauritu Angroisko tren-istripuan: gutxitan ikusten dugu hain grafikoki zenbait erabaki politikok hil egiten dutela. Tira, *botepron-toari* jaramon eginez gero, batzuk bai: Valentziako metroa, Madrilgo ospitale batean gaixo bat hil zenekoa, hodi okerretik janaria sartzeagatik.

Kontatzen zena, azkenengoan: A gripearen lehen biktimari hil zenean sabeletik bizirik eta birusik gabe ateratako haurtxoa hil zuen erizain arduragabe batek. “*¡Asesina!*”, entzun zen nire lantegian (Madrilen bizi nintzen). Kontatzen zena lehenengoan: telefonoz berriketan zebilen makinista baten arduragabekeriak laurogei pertsona hil zituen. Noski, “*¡Asesino!*” entzun nuen lanean.

Badira beste errelato batzuk. Azkenengoan: unitatean lehen eguna zuen eta psikiatrikoan amaitu zuen erizain batek hori egin beharra antolaketa eta planifikazio txar baten ondorio izan zen, murrizketena, lehen lerroan daudenak beti mugan ibili beharrarena. Lehenengoan: dokumental bat ere egin zen kontatzeko José Blancoren presak, Adifeko arduradunen jarrera, langileen kezak, teoriar bazeeuden segurtasun-neurrien falta... Badago txikitatik makinista izan nahi zuen gizon prestuaren istorioa ere.

Beren keinu bakoitza, makina izatetik urruntzen dituen edozein jarrera, ahuldade epaitu da epaitegian, medioetan, sare sozialetan... Ikusi ditugu zigortuta, umiliatuta, negarrez. Entzun dugu ardura indibiduala. Ikusi dugu sistema oso baten ondorioa bi bizkar bakartiren gainean. Ezin izan ditut makinistaren hitzak entzun, ez 2013an “istripua” gertatu zenean, ez orain. Ikuskizuna basatia da: bizitza osoan ehundutako duintasun txikitu bat. Zenbat duintasunek eusten dioten merezi ez duten sistema honi, zenbat duintasunek berezko arduradunen ohore psikopatei. ●



Espekulazioa

Senpere, Arbona eta Kanbo espekulazioaren kontrako topagune bihurtu dira. Urriaren 8an egin dute elkarretaratzea Senperen, 1.250.000 eurotan etxe bat saldu dutela salatzeke. Arbonan, Berruetako lurretan dagoen espekulazioa berriz ere aktualitate da, eta urriaren 21etik 23ra Marieniako laborantza lurak okupatuko dituzte.

Amiantoa

Espainiako Kongresuan aho batez onartua izan eta gero, azken urratsa egin du amiantoaren biktimei kalte-ordainak emateko funtsaren lege-proposamenak, Senatura iritsita. Funtsera 25 milioi euro bideratuko dira. ASVIAMIE amiantoaren biktimen elkarteak azaldu duenez, %90ak ez daki indemnizazio horiek jaso ditzakeenik.

Iruzurra

Osakidetzako EPE Enplegu Publikoetako Eskaintzetan 2018an salatutako filtrazioaren auzian, Arabako Auzitegiak adierazi du ez duela Osakidetzako aurreko zuzendaritza auzipetuko. LAB sindikatuak eman du erabakiaren berri, berak jarritakoa baita auzitegiak ukatutako helegitea. Hogei bat pertsona ikertu dituzte.